

#### ADINGABE ETA HELDU ZAURGARRIAK BABESTEKO EREDUZKO KODEA

#### «Santiago el Mayor» Salestar Inspektoria

#### 1.- SARRERA

Madrilen egoitza duen «Santiago el Mayor» Salestar Inspektoria (Inspektoria, hemendik aurrera) nortasun juridikoa duen entitate bat da, Salesko San Frantziskoren Elkarteak edo «On Boskoren Salestarrek» kanonikoki sortua, gazteen aldeko eginkizun hezigarri-pastorala gauzatzen duena Espainiako lurralde jakin batean. Hainbat giro eta zerbitzu (ikastetxeak, gazte-elkarteak, parrokiak, gizarte-plataformak, kirolak, kultura eta jolas jarduerak...) dituzten salestar komunitateek animatutako hezkuntza-erakundeak (Etxeak, hemendik aurrera) biltzen ditu.

Eginkizun edo zeregin horren hartzaileetako asko haur edo nerabe adingabeak dira, bai eta heldu zaurgarriak ere. Adingabetzat 18 urte baino gutxiago dituzten pertsonak hartzen ditugu; egoera zaurgarrian dauden heldutzat, berriz, gutxienez 18 urte dituzten pertsonak, betiere desgaitasun- eta gaixotasun-arrazoiengatik edo testuinguruagatik beren burua gerta daitezkeen kalteetatik edo esplotazio-egoeretatik babesteko gai ez badira.

Salestar Hezkuntza estiloa On Boskoren Prebentzio Sisteman oinarritzen da. Sistema hori honako elementu hauetan oinarrituta dago: *maitasuna*, indar askatzaile gisa; *arrazoia*, hezkuntza-proposamenen arrazoizkotasunaren bidez gauzatua; eta *erlijioa*, Jainko zentzu-emaileaganako fedea euskarri duela. Inspektoriako Etxe guztietako hezitzaileei –salestarrak nahiz seglarrak izan– sistema hori garatzea ezartzen zaie helburutzat, haien eskuetan jartzen diren haur eta gazteen sustapen integrala lortzeko.

Prebentzio espiritu horretatik abiatuta eskaintzen dugu Ereduzko kode hau, «Santiago el Mayor» Salestar Inspektoriako hezkuntza-pastoraleko presentzietan hezitzaile guztiek eta adingabe eta heldu zaurgarriekin harremanetan dauden pertsona guztiek hauei espazio segurua, tratu duina eta hazkunde pertsonal integralerako giro positiboa bermatzeko konpromisoa har dezaten.

#### 2.- PRINTZIPIO ETA ARAUAK

2.1.- Ereduzko Kode honen eragin-esparrua Inspektoria bera da, bai eta haren helburuak lortzen laguntzen duten eta, zuzenean edo zeharka, Adingabeekin eta Heldu Zaurgarriekin egiten diren jardueretan parte hartzen duten pertsona guztiak ere. Derrigorrezkoa eta loteslea da Kodea horientzat guztientzat; gainera, betetzea eska dakieke, eta ez-betetzeak zigortu egin daitezke, dagozkion diziplina-neurriak hartuz.



- 2.2.- Inspektoriako jarduera ororen erdigunea hezkuntza-misioaren hartzaile gazteak, haien zoriontasun pertsonala eta heldutasun integrala dira. Salestar Etxeak leku segurua izan nahi du Adingabe eta Heldu Zaurgarrientzat; eraso edo arrisku ororen aurka babestua eta defendatua sentitzeko leku bat, haien duintasuna, intimitatea eta eskubideak errespetatzen dituena. Horren ondorioz, Inspektoriak bere egiten du «Zero Tolerantzia» aplikatzeko konpromisoa Adingabe eta Heldu Zaurgarriek jasan ditzaketen tratu txar edo sexu-abusuen aurrean, eta lehena izango da jokabide horiei, gertatu orduko, aurre egiten, bai eta jokabideok agintari eskudunen aurrean salatzen ere.
- 2.3.- Berariazko jokabide hauek **sustatu** behar dira Adingabe eta Heldu Zaurgarriekiko harremanetan:
- a.- Haiek errespetuz eta duintasunez tratatzea eta diskriminaziorik gabeko giroa sortzea, edozein dela ere haien arraza, kolorea, nazionalitatea, gizarte-jatorria, adina, sexu-joera, ideologia, erlijioa edo bestelako egoera pertsonal, fisiko edo sozialak.
- b.- Tratu txarrik, abusurik edo jazarpenik ez gertatzeko zaintza egitea, nornahi dela ere jokabide horiek eragiten dituen pertsona.
- c.- Adingabe eta Heldu Zaurgarriekiko tratu egokia sustatzea; haientzako erreferente positiboak izanez, haien parte-hartzea bultzatuz, eta haien espazio pertsonala eta intimitaterako eskubidea ez ezik, haien datuen pribatutasuna eta identitatea ere errespetatuz, atxikimenduharreman seguru, egonkor eta positiboak indartuz; horrez gain, bizimodu-ohitura osasungarriak sustatuz, hala alderdi fisikoa nola psikologikoari eta emozionalari dagokionez; dinamika lehiakorrak saihestuz eta lankidetzako dinamikak sustatuz, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta pertsonen arteko komunikazioa bultzatuz.
- **2.4.-** Adingabe eta Heldu Zaurgarriekiko harremanetan, **debekatuta** daude **tratu txar eta botere-abusutzat** har daitezkeen honako berariazko jokabide hauek:
- a.- Irain eta hitz desegoki edo oldarkorrak erabiltzea haien aurrean, bai eta edozein ezaugarrirengatik desberdinak diren pertsonen aurkako gorrotoa bultzatzea eta pertsona desberdin horiek laidoztatzea ekar dezaketen jokabideak, jarrerak edo komentarioak ere.
- b.- Jokaera bortitzak, aurkakoak edo mehatxatzaileak erakustea –hitzezkoak nahiz fisikoak-, hala goranzkoak nola beheranzkoak (heldua-adingabea / adingabea-heldua), baita botere fisikoaren, psikikoaren edo emozionalaren desorekan oinarritutako dinamikak ere.
- c.- Substantziak (alkohola, tabakoa, drogak...) kontsumitzen uztea eta haien kontsumoa sustatzea edo bultzatzea, eta min nahiz kalte egiten dieten edo egin diezaieketen zuzeneko edukiak edo multimediakoak haien eskura jartzea edo eduki horien eraginpean jartzea.



- 2.5.- Adingabeekiko eta Heldu Zaurgarriekiko harremanetan, balizko **sexu-abusuen** prebentzio neurri gisa, honako jokabide hauek **saihestu** behar dira:
- a.- Bakarrik egotea Adingabe edo Heldu Zaurgarri batekin espazio itxietan, kanpoko ikusgarritasunik gabe edo taldetik bereizita, banakako lana behar izaten duten programetako zereginak garatzen dituztenen berezko baimena dutenak; salbu hau aurretik adieraziz berariaz dagokion konpromiso-dokumentuan. Ez da inoiz irakasle edo pertsonal ez-irakaslearen ibilgailu partikularrik erabiliko Adingabeen joan-etorrietarako.
- b.- Beharrezkoa ez denean, Adingabe eta Heldu Zaurgarriekin egotea nolabaiteko intimitatemaila eskatzen duten jardueretan (esate baterako, aldagelak, komunak, dutxak, etxetik kanpo egindako gauetan ...). Egoeraren larritasunak hala eskatzen duenean (adibidez, sendaketa edo urgentziazko arreta medikoak), osasun zerbitzuek edota 112ak adierazitako artapena emango da, legezko ordezkari eta arduradunei informazio emanez.
- c.- Datuen Babeserako Lege Organikoak xedatua urratzea, Etxeetako jardueren grabazioak edo argazkiak gailu partikularretan eta dagokion baimenik gabe egiteari dagokionez, etxean bertan zein etxetik kanpo, baldin eta argazki edo grabazio horietan Adingabe edo Heldu Zaurgarriak agertzen badira, eta are gutxiago irudi edo grabazio horiek gordetzea eta sare sozialetan argitaratzea, edota hirugarrenei uztea.
- 2.6.- Adingabe eta Heldu Zaurgarriekiko harremanetan, **debekatuta** daude **sexu-abusu** gisa hartu daitezkeen ondorengo jokabide zehatz hauek:
- a.- Harreman pertsonal esklusibo eta baztertzaileak, hezitzailearen eta hezigaien ustezko adiskidetasun batean oinarrituta justifikatzen direnean, edota hezigaienganako agintea, mehatxuak edo prebendak baliatzen direnean mota horretako harremanei eusteko.
- b.- Ukitu fisiko desegokiak, euren intimitatea inbadituz edota euren gorputzarekiko errespetua faltaz.
- c.- Pertsona horien aurrean jokabide erotikoa, exhibizionista edo sexu aldetik probokatzailea eta lotsaren aurkakoa erakustea.
- d.- Haiekiko edozein motatako sexu-harremanak.
- e.- Irudi sexualak edo pornografikoak erabiltzea edo erakustea, horretarako asmorik ez dagoenean eta norberaren tresnen bidez gauzatzen direnean barne.



h.- Haiekin Hezkuntza-harremanari berezkoak zaizkion jardueretatik kanpo Ereduzko Kode honen printzipioen edo jokabideen aurkako asmoa duten harreman pertsonalak izatea (esate baterako, telefono-deien, mezu birtualen, sare sozialen eta beste baliabide batzuen bidez)

#### 3.- BETE BEHARREKO NEURRIAK

#### Honako neurri hauek ezarri dira Ereduzko Kode hau betetzeko:

- **3.1.** Kode hau **hedatzea**. Barne-sareetan argitaratuko da, eta behar bezala komunikatuko eta erabiliko da prestakuntza orokorrean. Gardentasun eta sentsibilizazio-printzipioak jarraituz kodearen ulermena eta praktika egokia lortzeko.
- 3.2.- Langile guztiek **Konpromiso-dokumentu** bat sinatuko dute, Kode hau ezagutzen dutela, onartzen dutela eta errespetatuko dutela adierazteko; sinatutako dokumentua langilearen espedienteari gehituko zaiolarik. Gainera, hezkuntza-zerbitzua ematen hasi aurretik, Sexudelitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, delitu horiengatik zigorrik jaso ez dutela egiaztatzen duena.
- **3.3.-** Ereduzko Kode hau betetzen dela begiratzea, zaintzea eta **kontrolatzea**, organo pertsonal eta kolegiatuen bidez; organo horien identitatea eta funtzioak dagokion protokoloan zehaztuko direlarik.
- 3.4.- Salaketa Kanala, Kode honetako arauen edo legearen aurkako ekintzaren edo irregulartasunen bat egitea berekin ekar dezaketen jokabideak komunikatzeko, edo arau edo lege horien interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak kontsultatzeko.
- 3.5.- Salatzeko betebeharra. Inspektoriako pertsona guztiek dute Ereduzko Kode hau (kodeko edozein printzipio edo arau, dagokion protokoloaren arabera) urratzearekin lotutako zernahi susmo oinarridun, ekintza edo kexa dagokion arduradunari jakinarazteko edo Tokiko Salaketa Kanalaren bidez komunikatzeko betebeharra.
- **3.6.- Jarduketa Protokoloa**, argi eta garbi azalduko duena nola jokatu, baldin eta Adingabe eta Heldu Zaurgarriak Babesteko Ereduzko Kode honetako arauak urratu direlako salaketak gertatzen badira.

Kode honetako xedapenak **betetzea** funtsezko alderdia da Inspektoria honetako giro eta hezkuntzazerbitzuetako langile eta boluntario guztien kontratu-betebeharretan; horrenbestez, Kodea ez betetzeak dagozkion diziplina-zigorrak eragin ditzake; nolanahi ere, arau-hauste horiek bestelako erantzukizun batzuk ere ekar ditzakete.



| KONPROMISO-DOKUMENTUA (A Eredua) (Etxeko langileak)  |
|--|
| , 20(e)koren(a)  |
| Jaunak/Andreak,NAN zenbakiarekin, Salestar Etxeko  |
| ☐ Ikastetxe ☐ Gazte elkarte ☐ Gizarte-Plataforma ☐ Parrokia ☐ Beste batzuk giroko, ☐ Irakasle ☐ Begirale ☐ Kirol entrenatzaile ☐ Gizarte hezitzaile ☐ AZP ☐ Beste batzuk bezala,   |
| <ul> <li>ADIERAZTEN DU:</li> <li>Ezagutzen duela zein den bere zerbitzuak ematen dituen Salestar Inspektoriako Etxeko nortasuna eta hezkuntza-pastoral proiektua, baita Inspektoriak hezkuntza komunitateko kide guztiei, Adingabe eta Heldu Zaurgarriei batez ere, beren eskubideak errespetatzen zaizkiela</li> </ul>  |
| <ul> <li>bermatzeko duen konpromisoa ere;</li> <li>Ereduzko Kodea jakinarazi eta jaso duela, hau errespetatzeko konpromisoa hartzen duelarik. Haren alea idazki honekin batera doa;</li> <li>Badakiela Etxeko jarduerekin zuzeneko edo zeharkako harremana duen eta eskubide horiek urratzen dituen edozein pertsona dagokion agintaritzaren aurrean salatuko dela;</li> <li>(Hala badagokio) 2.5 puntuko «a» letran jasotakoari heltzen diola Adingabe eta Heldu Zaugarriekin lekukorik gabeko banakako lana eskatzen duten programetan lan egiteari dagokionez.</li> </ul> |
| KONPROMISOA HARTZEN DU:  |
| <ul> <li>Ereduzko Kodea osorik irakurri, eta lanerako eta kontsultarako tresna bihurtzea;</li> <li>Ereduzko Kodea betetzen ez duen edozein ekintza salatzea, erantzunkizunez eta errespetuz eginez.</li> </ul>   |
| Eta konpromiso honen zeinu gisa, dokumentu hau sinatzen du goian adierazitako datan.   |
| Sin.:<br>Izen eta abizenak   |



KONPROMISO-DOKUMENTUA (B Eredua)
erakunde bateko kideak. Etxeari noizean behin zerbitzua ematen diotenak)

| (Beste erakunde dateko kideak, Etxeari noizean benin zerbitzua ematen diotenak)   |
|---|
| , 20(e)koren(a)   |
| Jaunak/Andreak, NAN zenbakiarekin   |
| Salestar Etxeko   |
| bezala (adierazi zer zerbitzu mota ematen den)  |
| DIERAZTEN DU:   |
| <ul> <li>Ezagutzen duela zein den bere zerbitzuak ematen dituen Salestar Inspektoriako Etxeko nortasuna eta hezkuntza-pastoral proiektua, baita Inspektoriak hezkuntza komunitateko kide guztiei, Adingabe eta Heldu Zaurgarriei batez ere, beren eskubideak errespetatzen zaizkiela bermatzeko duen konpromisoa ere;</li> <li>Ereduzko Kodea jakinarazi eta jaso duela, hau errespetatzeko konpromisoa hartzen duelarik. Haren alea idazki honekin batera doa;</li> <li>Badakiela Etxeko jarduerekin zuzeneko edo zeharkako harremana duen eta eskubide horiek urratzen dituen edozein persona dagokion agintaritzaren aurrean salatuko dela.</li> </ul> |
| ONPROMISOA HARTZEN DU:  |
| <ul> <li>Ereduzko Kodea osorik irakurri, eta lanerako eta kontsultarako tresna bihurtzea;</li> <li>Ereduzko Kodea betetzen ez duen edozein ekintza salatzea, erantzunkizunez eta errespetuz eginez.</li> </ul>  |
| a konpromiso honen zeinu gisa, dokumentu hau sinatzen du goian adierazitako datan.  |
| n.:<br>en eta abizenak  |



# CÓDIGO DE CONDUCTA PARA LA PROTECCIÓN DE MENORES Y ADULTOS VULNERABLES

#### Inspectoría Salesiana "Santiago el Mayor"

#### 1.- INTRODUCCIÓN

La Inspectoría Salesiana "Santiago el Mayor" (en adelante, Inspectoría), con sede en Madrid, es una entidad con personalidad jurídica, erigida canónicamente por la Sociedad de San Francisco de Sales o "Salesianos de Don Bosco", que realiza en un territorio determinado de España una misión educativo-pastoral en favor de los jóvenes. Agrupa a un conjunto de obras educativas (en adelante, Casas), animadas por comunidades salesianas con una diversidad de ambientes y servicios (escuelas, centros juveniles, parroquias, plataformas sociales, deportes, actividades culturales y recreativas...).

Muchos de los destinatarios de esta misión son niños y adolescentes menores de edad y también adultos vulnerables. Consideramos menores de edad a las personas menores de 18 años; y adultos en situación de vulnerabilidad, a las personas de al menos 18 años de edad que, por razones de discapacidad, enfermedad o por el contexto en el que se encuentran, son o pueden ser incapaces de protegerse a sí mismas de potenciales daños o situaciones de explotación.

El estilo educativo salesiano se fundamenta en el Sistema Preventivo de Don Bosco. Este sistema está basado en el *amor* como fuerza liberadora, la *razón* desde la racionalidad en las propuestas educativas y la *religión* sustentada en la fe en Dios como dador de sentido. Todos los educadores, salesianos o seglares, de las Casas de la Inspectoría están llamados a desarrollar este sistema para la promoción integral de los niños y jóvenes a ellos confiados.

Desde este espíritu preventivo, se ofrece el presente Código de Conducta, con la intención de que en las presencias educativo-pastorales de la Inspectoría Salesiana "Santiago el Mayor", todos los educadores y toda persona en contacto con Menores y Adultos Vulnerables se comprometan en garantizarles un espacio seguro, un trato digno y un ambiente positivo de crecimiento personal integral.

#### 2.- PRINCIPIOS Y NORMAS

**2.1.-** El presente Código de Conducta alcanza a la Inspectoría en sí, y a cuantas personas contribuyen a conseguir sus fines y participan, directa o indirectamente, en las actividades con Menores y Adultos Vulnerables. Es obligatorio y vinculante para todos ellos, siendo exigible su cumplimiento y sancionable su incumplimiento con la adopción de las medidas disciplinarias correspondientes.



- **2.2.-** El centro de toda actuación de la Inspectoría son los jóvenes destinatarios de la misión educativa, su felicidad personal y su maduración integral. La Casa salesiana quiere ser para los Menores y Adultos Vulnerables un lugar seguro donde se sientan protegidos y defendidos contra toda agresión o peligro y donde se respeten su dignidad, intimidad y derechos. Como consecuencia, la Inspectoría asume el compromiso de "Tolerancia Cero" hacia toda posible conducta de maltrato o abuso sexual a Menores y Adultos Vulnerables, siendo la primera en perseguir estos comportamientos en cuanto se produzcan, y en denunciarlos ante las autoridades competentes.
- **2.3.-** Han de **promoverse** en la relación con los Menores y Adultos Vulnerables, los siguientes comportamientos específicos:
- a) El trato con respeto y dignidad, generando un ambiente de no discriminación por motivo de raza, color, nacionalidad, origen social, edad, orientación sexual, ideología, religión o cualquier otra condición personal, física o social.
- b) La vigilancia en orden a impedir e informar de cualquier tipo de malos tratos, abusos o acoso, independientemente de quien pudiera causarlo.
- c) La promoción del buen trato con los Menores y Adultos Vulnerables siendo referentes positivos para ellos, motivando su participación, respetando su espacio personal y su derecho a la intimidad así como la privacidad de sus datos e identidad, fortaleciendo relaciones de apego seguro, estable y positivo; favoreciendo hábitos de vida saludables, tanto a nivel físico como psicológico y emocional; evitando dinámicas competitivas y promoviendo dinámicas cooperativas, fomentando la resolución pacífica de los conflictos y la comunicación interpersonal.
- **2.4.-** Están **prohibidos**, en la relación con los Menores y Adultos Vulnerables, los siguientes comportamientos específicos que pueden ser catalogados como **maltratos y abusos de poder**:
- a) El uso de insultos, palabras inadecuadas o agresivas en su presencia, así como conductas, actitudes o comentarios que puedan incitar al odio o estigmatizar a las personas que son diferentes por cualquier motivo.
- b) Los comportamientos violentos, hostiles o amenazantes a nivel físico y verbal, tanto en forma ascendente o descendente (adulto-menor o menor-adulto), así como las dinámicas basadas en el desequilibrio de poder físico, psíquico o emocional.
- c) Permitir, promover o incentivar el consumo de sustancias (alcohol, tabaco, drogas...) y el acceso o exposición a contenidos en vivo o multimedia que sean potencial o realmente nocivos y que puedan ocasionarles daño.



- **2.5.-** Como medidas preventivas de posibles **abusos sexuales**, han de **evitarse** en la relación con los Menores y Adultos Vulnerables, los siguientes comportamientos específicos:
- a) El estar a solas, en espacios cerrados, sin visibilidad desde el exterior o apartado del grupo, con un Menor o Adulto Vulnerable, salvo con la autorización propia de quienes desarrollen tareas en programas que precisen habitualmente un trabajo individual, debiéndolo especificar previamente en el correspondiente documento de Compromiso. Nunca se usarán vehículos particulares de personal docente o no docente para el desplazamiento de menores.
- b) La presencia innecesaria e injustificada ante menores y adultos vulnerables en actividades que precisan un grado de intimidad (por ejemplo, vestuarios, aseos, duchas, pernoctaciones...). Cuando la urgencia del caso lo requiera (por ejemplo, una cura o atención médica urgente), se atenderá los que los servicios sanitarios o el 112 indiquen, informando a los representantes legales y responsables.
- c) La vulneración de lo marcado en la Ley Orgánica de Protección de Datos por lo que se refiere a la realización en dispositivos particulares y sin el permiso correspondiente de fotos o grabaciones de actividades de la casa, tanto dentro como fuera de la misma, en la que aparezcan Menores o Adultos Vulnerables, y menos aún su conservación y divulgación en redes sociales o su cesión a terceros.
- **2.6.-** Están **prohibidos**, en la relación con los Menores y Adultos Vulnerables, los siguientes comportamientos específicos que pueden ser catalogados como **abusos sexuales**:
- a) Las relaciones personales exclusivas y excluyentes, justificadas desde una supuesta amistad entre educador y educandos, o sirviéndose de la autoridad que se tiene sobre ellos o las amenazas o prebendas para mantener dicho tipo de relación.
- b) Los contactos físicos inapropiados, invadiendo su intimidad o faltando al respeto debido a su propio cuerpo.
- c) Mantener en su presencia una conducta erótica, exhibicionista o sexualmente provocadora y contraria al pudor.
- d) Las relaciones sexuales de cualquier tipo con ellos.
- e) La utilización o la exposición de imágenes de naturaleza sexual o pornográfica, incluso aunque no sea intencionada y se produzca en instrumentos propios.



f) El contacto personal con ellos fuera de las actividades propias de la presencia educativa con intencionalidad contraria a los principios y comportamientos del presente Código de Conducta (por ejemplo, a través de llamadas de teléfono, mensajería virtual, redes sociales, u otros medios).

#### 3.- MEDIDAS PARA EL CUMPLIMIENTO

Se establecen las siguientes **medidas para el cumplimiento de este Código de Conducta**:

- **3.1.-** La **difusión** del mismo. Permanecerá publicado en las redes internas y será objeto de las adecuadas acciones de comunicación y formación, siguiendo los principios de transparencia y sensibilización para su oportuna comprensión y puesta en práctica.
- **3.2.-** La firma, por parte de todo el personal, de un documento de **Compromiso** de conocimiento, adhesión y respeto de dicho código, que se incorporará a su expediente. Asimismo, se debe presentar, previamente a su incorporación al servicio educativo, el certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales.
- **3.3.-** Las funciones de supervisión, vigilancia y **control** del cumplimiento del presente Código de Conducta, por medio de los órganos personales y colegiados, cuya identidad y funciones se especifican en el Protocolo correspondiente.
- **3.4.-** El **Canal de Denuncia**, con el objeto de comunicar las conductas que puedan implicar la comisión de alguna irregularidad o de algún acto contrario a la legalidad o a las normas de actuación de este Código, o para consultar dudas que pudieran surgir sobre su interpretación.
- **3.5.-** El **deber de denunciar**. Toda persona de la Inspectoría tiene la obligación de informar al responsable correspondiente, o a través del Canal de Denuncia local que indique el Protocolo correspondiente, de cualquier sospecha fundada, acto o queja relativa a la vulneración del presente Código de Conducta en cualquiera de sus principios o normas.
- **3.6.-** El **Protocolo de Actuación**, que indicará de forma clara y unívoca cómo proceder en caso de denuncia de conductas contrarias a los preceptos de este Código de Conducta para la Protección de Menores y Adultos Vulnerables.

El **cumplimiento** de las disposiciones de este Código forma parte esencial de las obligaciones contractuales de los empleados y voluntarios de la Inspectoría en todos sus ambientes y servicios educativos, de modo que, sin perjuicio de cualquier otra responsabilidad a que pudiera dar lugar, su incumplimiento puede motivar la adopción de las sanciones disciplinarias correspondientes.



## 

#### DECLARA:

- Conocer la identidad y el proyecto educativo-pastoral de la Inspectoría Salesiana a la que pertenece la Casa en la que presta sus servicios, y el compromiso de dicha Inspectoría por garantizar a todos los miembros de la comunidad educativa, especialmente a los Menores y Adultos Vulnerables, el respeto de sus derechos;
- Haber sido informado/a y recibido el Código de Conducta, que se compromete a respetar, y cuyo ejemplar acompaña a este escrito;
- Saber que cualquier persona que esté en relación directa o indirecta con las actividades de la Casa y que vulnere esos derechos, será denunciado ante las autoridades pertinentes;
- (Si es el caso) Acogerse a lo que contempla el punto 2.5, letra «a», respecto al desarrollo de tareas en programas que precisan habitualmente un trabajo individual sin testigos con Menores y Adultos Vulnerables.

#### SE COMPROMETE:

- A leer íntegramente el Código de Conducta, haciendo de él un instrumento de trabajo y de consulta:
- A denunciar cualquier acto en el que se observe un incumplimiento del Código de Conducta, haciéndolo con responsabilidad y respeto.

|   |               |                |          | c· .       |             |       |          |          |          |
|---|---------------|----------------|----------|------------|-------------|-------|----------|----------|----------|
| Υ | romo signo    | de este compro | mich t   | tirma este | documento   | on Ia | techa.   | arriha i | ndicada  |
|   | COILLO SIXILO | ac cott combio | 111130.1 |            | accumento . | -1114 | I CCI IG | aiibai   | Huicada. |

Fdo.: Nombre y apellidos



### DOCUMENTO DE COMPROMISO (Modelo B)

(Personal miembro de otra entidad, en servicio ocasional a la Casa)

|  |   | En  | , a                                    | de                              | de 20  |
|--|---|---|--|---------------------------------|--|
| D/Dª   |   |   |  |                                 |  |
| con DNI  |   |   |  |                                 | ,  |
| como (indicar el tip                                   | o de servicio que   | se presta)  |  |                                 |  |
| en la Casa salesian                                    | a de  |   |  |                                 | ,  |
| pertenece  | la Casa en la qu  | ie presta sus serv                                    | vicios, y el co                        | ompromiso de                    | ría Salesiana a la que<br>e dicha Inspectoría por<br>mente a los Menores y |
| Adultos Vu     Haber sido     ejemplar a     Saber que | ilnerables, el resp<br>informado/a y re<br>compaña a este e<br>cualquier person | peto de sus derech<br>cibido el Código de<br>escrito; | nos;<br>e Conducta, c<br>ación directa | que se compro<br>o indirecta co | mete a respetar, y cuyo<br>on las actividades de la                        |
| SE COMPROMETE  | <b>≣</b> :  |   |  |                                 |  |
| consulta;<br>• A denuncia                              |   | en el que se obs                                      |  |                                 | mento de trabajo y de<br>el Código de Conducta,                            |
| Y como signo de es                                     | ste compromiso, f   | firma este docume                                     | ento en la fec                         | ha arriba indid                 | cada.  |
| Fdo.:<br>Nombre y Apellido:                            | 5   |   |  |                                 |  |